

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

314/2020 Foru Agindua, abenduaren 22koa. "Naturarekin bat: Arabako ingurumena zaintzeko eta mantentzeko espazioa" proiektua interes publikokotzat jotzea, ingurumen hezkuntzako jarduerak garatzeari dagokionez, Asparrena herriko lurzoru urbanizaezinean

Xabier Molinero Martínez jaunak eta Elena González Letelier andreak udal baimena eskatu diote Asparrenako Udalari, "Naturarekin bat: Arabako ingurumena zaintzeko eta mantentzeko espazioa" izeneko ingurumeneko jarduera didaktikoaren proiektua garatzeko, Asparrena udal-herriko lurzoru urbanizaezinean, Arriolako kontzejuan, Mendigutxi parajea.

Asparrenako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Udal arkitektoak emandako txostenean ageri denez, proiektuak 1. poligonoko 377 lurzatiari eragiten dio, lurzoru urbanizaezin modura sailkatutakoa eta, duen balio naturala dela medio, babes bereziko eremu gisa kalifikatutakoa.

Aurkeztutako memoria teknikoaren arabera, egin nahi den jarduera nagusia tailerrak eta ikastaroak egitea da, baita pertsonekin lotutako bizipen esperientziak eta ingurumenarekin duten harremanari buruzkoak ere. Proiektuan, batetik, aurreikusi da prestakuntzari lotutako jarduera areto bat eraikitzea, naturarekiko konexio eta kontzientziatzeari dagokionez; bestetik, aurretik existitzen zen eraikin batean landa turismoko aterpetxe bat eraikitzea aurreikusi da.

Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak txostena egin zuen irailaren 2an, eta bertan honako hau adierazi zuen: "1 poligonoko 377 lurzati lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dago eta, oro har, J.11 eremu gisa kalifikatuta dago, alegia, babes bereziko eremu gisa, bere natura balioagatik, bat etorritik 2017ko azaroaren 29ko ALHAOn (137. zk.) argitaratutako Asparrenako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean xedatutakoarekin".

1.6.1.2 artikulua ("Babes bereziko J.1 eta babestutako J.2 landa eremuetako kalifikazio globalaren bidez baimendutako eraikuntza erabilerak eta jarduerak"), 3. puntua ("Erabilera bat baimentzeko baldintza orokorrak"), a letran, honako hau ezartzen du: "Erabilera bat plangintza orokor honetako kalifikazio globalaren bidez zuzenean baimendu ahal izateko, beharrezkoa da artikulua honetan baimendutakoen artean goatea".

Artikulu horretako laugarren puntua, "J.11. zonan baimendutako erabilerak. Babes bereziko eremua: balio naturala" izenekoa, b) letran ezarri zuenez, "ikerkuntza eta dibulgazio zientifikoarekin, ingurumen hezkuntzarekin eta/edo eremuaren beraren zaintza eta babesarekin zerikusia duten interes publikoko jarduerak baimendu daitezke".

Artikulu horren 4. puntua eta memoriaren II.5.2 eta III.1.2 atalak ikusita, argi geratzen da Asparrena udalherriko Natura 2000 Sareko guneak barne hartzen dituen lurzoru urbanizaezinen babes bereziko eremu horretan eraikuntza erabilerak debekatu direla. Zona horretan ez daude baimenduta 1.6.1.1 artikuluan aipatutako interes publikoko eraikinak, eraikuntzak eta instalazioak, "Babes bereziko J.1 eta babestutako J.2 landa eremuetako kalifikazio globalaren bidez baimendutako erabileren sailkapen orokorra" izeneko artikuluan, alegia, b) puntuan, lurzoru urbanizaezineko beste eremu batzuetan baimendu bezala.

Ondorioz, aplikatu beharreko hirigintza araudiak ez du baimentzen oin berriko eraikinak eraikitzea ingurumen hezkuntzarekin lotutako interes publikoko jardueretarako, ez eta lehendik dagoen eraikina landa turismoko aterpetxe gisa erabiltzea ere. Ingurumen hezkuntzarekin lotutako interes publikoko jarduerak baimentzekotan, aire zabalean edo lehendik dagoen eraikinean egitekoak izan behar dira.”

Txostenaren berri eman zaio Asparrenako Udalari, eta 2020ko irailaren 16ko dataz udal horrek irailaren 9an hartutako erabakiaren ziurtagiria igorri zuen; honako hau dakar, hitzez hitz: “...Udalari emandako alegazioen izapidearen barruan, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez onartu du interes publikoko aitopenearekin adostasuna agertzea, azaldutako inguruabarretan, hau da, “Naturarekin bat: Arabako ingurumena zaintzeko eta mantentzeko espazioa” proiektua interes publikotzat jotzea, Arriola inguruko 1. poligonoko 377 lurzatian, aurretik existitzen zen eraikinean edo aire librean ingurumen hezkuntzako jardueri dagokienez.”

Espedientean Foru Aldundi honen Natura Ondarearen Zerbitzuaren aldeko txostena jaso da, 2020ko urtarrilaren 24ko data duena, sustatzailearen eskaerari erantzuteko eman zena, Asparrenako 1. poligonoko 377 lurzatian ingurumenari lotutako jarduera didaktikoak egiteko, baita lurzati horren inguruetan ere. Txosten horretan ondorioztatu zenez, “jarduerak eragina dute Barrundia ibaia ES2110017 KBEEn, eta espazio horrek baditu kontserbazio neurriak eta jarraibideak; jarduerak eragina dute, halaber, interes bereziko areatan, Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan jasotako zenbait fauna espezieetan, eta horiek Arabako lurralde historikoko kasuan kasuko kudeaketa planak dituzte. Inplikazioak aztertu eta ebaluatu ondoren (...) ondorioztatu da jarduera horiek ez dutela habitat eta espezieetan antzemateko moduko eraginik sorraraziko, betiere aipatutako prebentzio eta zuzenketa neurriak errespetatzen badira (...)”

Bidenabar, Arriolako kontzejuaren txostena eta URA Uraren Euskal Agentziaren txostena ere jaso dira, baita Lautada Landa Garapen Elkartearen txosten bat ere.

Eskaeraren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako. Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak agerrarazi duenez, URAren eta Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalaren txostenak ikusita, proiektua ez dago ingurumen ebaluaziorako prozedura egin behar duten kasuen artean; hala ere, Barrundia ibaiaren KBEren barruko eremuari erasan ahal dion edozein eraikuntza edo hesi eraikuntzak bai bete beharko luke prozedura hori; lurzatiaren barruko eremuari erasaten dioten KBEren mugak jaso dituen planoak atxiki da.

Aurrekari horiei honako oinarri juridiko hauek aplikatzea dagokie:

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzea babesten duen landa egoeran dagoen lurzorian, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Urriaren 7ko 234/2020 Foru Aginduaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion espedienteari, eta hura 20 egunez jendaurrean edukitzeko aldia ireki zen, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Espedientea 2020ko urriaren 28ko ALHAOn (122. zenbakia) argitaratu zen. Horretarako emandako epearen barruan ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Bigarrena. "Naturarekin bat: Arabako ingurumena zaintzeko eta mantentzeko espazioa" proiektuaren memorian ageri denez, helburu nagusia hezkuntza zerbitzuak ematean datza, hala Arabako natuarekiko konexioa lortzea sustatzeko, ingurumenarekiko kontzientzia hartzea ikusgarri egiteko espazio batean. Helburuko publikoa haurrak, gazteak eta helduak dira, Arabakoak, Euskal Autonomia Erkidegokoak eta Espainiakoak; hala, familiek ingurumenarekiko kontzientzia esparruan esperientziak bizi eta integratzea lortu nahi da. Ingurumen kontzientzia sortzea lortu nahi da, eremuan bertan lan eginez, praktikarekin heziz.

Parte hartzen duten pertsona guztien artean ingurumenarekiko erantzukidetasun proiektu modura planteatu da, prestakuntza saioak basoaren erdian eginez, eta euskararen erabilerari arreta berezia jarritz. Jarduerak lotura dute ingurumena sustatu, babestu eta zaintzeko helburuekin, naturaren iraunkortasunean oreka lortzen laguntze aldera. Besteak beste, honako hauek aipatu dira: Parke Naturalaren inguruan interpretazio ibilbideak, irteera ornitologikoak, zuhaitzen erreinua ulertzeko tailerrak ehun urtetik gorako haritzak bisitatuz (maisuhaitzak), PNL (Programazio Neurolinguistikoa) teknikak lantzea, baita mindfulness teknikak ere oinez ibiltze kontzientearen bitartez, biodantza tailerrak, soinu masajeak ontzi tibetarren bitartez, probintzia mailako eta tokiko faunaren kondaira herrikoiak sustatzea, birziklapen tailerrak, etab.

Landa eremuan ezartzeko beharra betekizuna da jarduera bat landa lurzoruan ezartzea justifikatzeko eta horrek eskatzen du jarduketak lotura funtzional eta zuzena izatea landa ingurunearekin. Aurkeztutako proiektua ikusita, ingurumen hezkuntzako jarduerak eta naturan bizipen esperientziak izatea hartzen ditu oinarritzat, eta hortik dator J.11. zonan (babes bereziko eremuak: balio naturala) baimendutako erabileren artean kokatzea; izan ere, lehenago esan bezala, ikerkuntza eta dibulgazio zientifikoarekin lotutako interes publikoko jarduerak baimendu daitezke, ingurumen hezkuntzarekin eta/edo eremuaren beraren zaintza eta babesarekin zerikusia duten jarduerak.

Landa Inguruaren Garapenerako apirilaren 8ko 10/1998 Legeak lehen artikuluan ezarri zituen landa ingurunearen garapeneraren alorrean Euskal Autonomia Erkidegok herri administrazioen jarduna gidatu behar duten helburuak, tresnak eta araudi esparrua, eta honako hau ezarri zuen: "Lege honi dagokionez, hau da landa ingurunearen garapena: Euskal Autonomia Erkidegoan landa inguruko erkidegoak mantendu eta indartzera zuzentzen den prozesua, bertako kultura eta bizimodu propioen artapena bultzatzen duena, biztanleen bizi kalitatea hobetzera jotzen duena. Landa inguruko biztanleek, prozesu horren onuradun nagusiak diren aldetik, biziki parte hartuko dute, inplikaturiko gainerako agente publiko zein pribatuekin batera, gauzatu nahi duten garapen motaren definizio eta lorpenean. Prozesu horrek, halaber, garapen endogenoa bultzatu behar du, baita landa inguruko bizilagunen eta gainerako arteko integrazio eta elkarreraginerako lagungarri izan ere, eta landa inguruko erkidegoen susperketa ekonomiko eta soziala lortzeko hartzen diren neurri guztiek paisaiaren, naturaren eta ingurumenaren artapenerako bermea izan behar dute".

Legearen bigarren tituluaren laugarren artikulua eta hurrengoek landa ingurunearen garapenerako programak arautu zituzten; bereziki Euskal Herriko landa ingurunea garatzera orientatzen diren politikak jaso zituzten. Bestalde, Landa Garapenerako Elkarrekin zuzenbide pribatuko entitateak dira, eta inguruko hainbat sektore ekonomiko eta sozial ordezkatzeko dituzte Landa Garapenerako Programa batean; landa garapen eta nekazaritza arloan eskumenak dituzten administrazio publikoek ere parte har dezakete. Eskualdearen garapena eta babesa da haien funtzio nagusia, eskualdea garatzea helburutzat duten proiektuak kudeatu, dinamizatu eta kontsulta zerbitzuaren bitartez.

Asparrena herria Arabako Lautadako programan dago integratuta. Horren haritik, Lautada-Landa Garapen Elkartek 2020ko maiatzaren 22an emandako txostenean jaso zenez, banakako aholkularitza lanak eman dituzte espediente honek hizpide duen proiektua garatzeko; gaineratu duenez: "Proiektuaren helburua da hezkuntza zerbitzuak ematea, txangoei, taile-rreri, ikastaroei eta egonaldiei dagokienez. Espazio hori sortuko litzateke ingurumenarekiko kontzientziazioa kudeatzeko eta hazkunde pertsonaleko gaien inguruko tailerrak antolatzeko; oso interesgarria izango litzateke inguru horrentzat, ekarriko lukeelako enplegua sortzea, populazioa finkatzea eta zona horretako baliabide naturalen balioa nabarmentzea, hain justu ere baso inguru batean dagoelako, Aizkorri-Aratz Parke Naturaletik gertu, dena Eskualdeko Landa Garapenerako 2015-2020 Planean jasotakoa". Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Naturarekin bat: Arabako ingurumena zaintzeko eta mantentzeko espazioa" proiektua interes publikokotzat jotzea, Arriola guneko 1. poligonoko 377 lurzatian, ingurumen hezkuntzako jarduerak garatzeari dagokionez aire librean edo lehenagotik existitzen den eraikinean, Asparrena herriko lurzoru urbanizaezinean, bat etorritz Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin.

Bigarrena. Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak emandako txostenaren berri ematea Asparrenako Udalari, Xabier Molinero Martínez jaunari eta Elena González Letelier andreari.

Hirugarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea bukarazten du, eta honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako aretoan; nolana ere, aukeran, berraztertze errekurtsua ere aurkeztu ahalko da egintza eman zuen organo beraren aurrean, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin bat etorritz; egokitzat jotako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahalko da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 22a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO